

Garmendia ta Arzelus' tar Juan Jose

APAIZAK

Piarres Lafitte, apaiz-lagun agurgarri-ari, agur, biotzez. Zintzo jokatu dezu, lanarik asko, gaindua egonarren, zure lana bialduaz.. Zure idatzia Bidal-etxetik jaso muala - ba dira egun batzuk. Milla esker, milla bider, bejoandeizula eta aurrera!. Gure Kardaberaz Bazkunaren, III'en, urtekarian argitaratuko ditugu batean zure bi lanak. II'ena, lkalean da, laister.

Ortik zer berri...? Emendik, "EUSKERAREN" gaia, maiz dator albiste eta berri egunerokoetan... Iruñian Aldundik eratu-tako "Euskera erakusleen ikastaroa", beraren ardurapenean Oñati'n "itzaldiak".. Deusto'n eta Derion Ikastaroak.. Araba'n "euskera babestu naiena"... Guk Kardaberaz' tarrok, oporrak izan arren, ... Irarkolan dauzkagu Shekespeare'n 32 antzerkiak, "Zeanuriko euskalkiaz" euskeratuta.. eta beste bi liburu ale "eleberriak, Anastasio Albisurenak, Azkoitin apaiz dagona.. eta gipuzkoeraz euskeratuta.. eta II'en urtekaria.. Zure lanakin lapurteraz egifik, iru euskalki jatorretan, gure irakurleai eskefiko dizkiogu... Euskalerrri jeikiko da, bakoitzaren izardiarekin... Ipar eta ego, erdi eta barren.. andik eta emendik jokatuaz. Jarraitu lanean.. euskalkiak bearrekoak ditugu, Euskera, bizzi dedin! Beste ifokin artu emanik ez ba zenduke, zure lanak gure gain artuko genduzke.. Bialdu albisteak.. Ipar-Euskalerrri zoragarri ortatik... Zure Berriena zai, Txango polita Hendaya tik Sara Dantxarinana, Hasparren Canbo... Urt Bayona Irun Tolosa... Urtero "umeai, txngo an erasten diet zatika gure euskal lurraldea..." Negu beltza jun ote da Euskalerrri'tik? Gurec "Udaberria" ren asiera ote gugu?. Ainbeste "euskal ekintza" ikastaro eta abar... ikastolak...! Jaiki jaiki euskotarra, laister dator eguna... Zure zai. Nerean, zurea dezu, ongi etorria!. Bere agurrik zintzoena bidaltzen dizu

Tolosan 19⁷² -go dagonillaren 13 an -ren

Garmendia ta Arzelus' tar Juan Jose

APAIZAK Nere adiskide on Pierre

Laffitte: Aspalditik zurekin egoteko asmotan nebilen.
Zure idatziak agertu ziran gure Kardaberaz Bazkunaren
aldizkarian -Kardaberaz-3- 1.975 "Mende huntako Euskal-
dun idazleen pentsa bideak" eta "Euskalerriko leen-gizak
kien Sifistek", Arreua goaz ta Euskalerrian zear gabiltz
gure liburuak zabaltzen. Bearrekoak ditugu bazkideak eta
ain zuzen, zu, gure artekoa artzenzaitugu. Orregatik or
izango gaituzu liburuakin, ta emen daukazu oien zerrenda,
baliokin, Aurten argitaratzekoak oek dira: "Umandiren
Euskal Eliztia" era-berritua: "On Manuel Lekuonaren bere
idatzi guzien bilduma, iru aletan", "On Justo Mokoroaren
Euskal esakerak 5 ale aundi-etan", eta abar. Eiguzu arren
bazkideak. ! Eskarrikasko !. Orain beste fabore bat eskatu-
ko dizut: liburu bat argitaratzeko bidean daukat On Manuel
Lekuonaren Omenaldian eta idatzi lantxoak badauzkat eta
zurea eskatzen dizut eta gaia au aukeratzen dizut: "ON MA-
NUEL LEKUONA IDAZLEA", Aikiak dituzu 6 edo 10' embat orri
aldi, arren len bailen, Paskorako. Eskar milla, zure zai
Bere agurrik zintzoena bidaltzen dizu

Tolosan 19 76 -go II -ren 21 -an